



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TXOSTENA, JARRAIBIDE BATI BURUZKOA. JARRAIBIDEAREN GAIA: PUBLIZITATERIK GABE NEGOZIATUTAKO KONTRATUAK ETA TOKIKO ENPRESEI GUTXIENEZ HIRU ESKAITZA ESKATU BEHARRA

Aurkibidea:

[I.- Txostenaren aurrekariak eta xedea](#)

[II. LEAren eskumenak](#)

[III. Zerbitzuko Jarraibideen izaera juridikoa](#)

[IV. Kontratazio publikoa eta Lehia](#)

[V. Kontratista hautatzeko eta kontratuak esleitzeko prozedurak.](#)

[VI. Gasteizko alkatearen Jarraibidea eta lehia librea](#)

[VIII. Ondorioak](#)

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea
Natividad Goñi Urriza andrea, bokala
Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala
Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2015eko maiatzaren 19ko osoko bilkuran, adierazitako osaerarekin, txosten hau onartu du. Txostenaren gaia: Gasteizko alkatearen 2014ko maiatzaren 5eko Jarraibidea, publizitaterik gabe negoziatutako kontratuei eta tokiko enpresei gutxienez hiru eskaintza eskatu beharrari buruzkoa.



I.- Txostenaren aurrekariak eta xedea

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) jakin zuenez, Gasteizko Alkatetzak ebazpen bat eman zuen beren egoitza fiskala Gasteizen duten enpresen produktuak eta zerbitzuak kontratatzea sustatzeko. Ebazpen hori prentsan zein udalaren web orrian jaso zuten.

2014ko maiatzaren 19an, Lehiaren Euskal Agintaritzak hauek eskatu zizkion Gasteizko Udaleko alkateari: aipatutako ebazpenaren kopia bat, bai eta hari buruzko administrazio-espeditarena edo dokumentazioarena ere. Hori guztia, lehiaren defentsarako araudiaren arabera aztertzeko xedez.

2014ko ekainaren 4an sartu zen LEAren erregistro orokorrean idazki bat, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenerako Saileko Administrazio Zerbitzuko buruak sinatua. Idazki horrekin batera, Alkatetzaren ebazpenaren eta 05/2014 administrazio-espeditarearen kopia bidali zuen. Gaia: "Udalaren konpromisoa tokiko gobernuarekin"

Espediente horretan honako agiri hauek biltzen ziren:

- 1.- "Txostena, Udaleko Ekonomia Sustapenerako Sailaren koordinatzaile orokorrak eskatua, eskaintzak eskatzeko kontratisten Udal Erregistro bat sortzeko legezko aukerari buruzkoa".
- 2.- Informazio-eskaria, Udal Talde Sozialistak alkateari aurkeztua. Eskariaren gaia: alkatearen ebazpena kopia eta ebazpen horri dagozkion txosten teknikoaren kopia (udalak publizitaterik gabe negoziatutako kontratuetan tokiko enpresen kontratazioa bultzatzea)
- 3.- "Udalak tokiko kontsumoa sustatzea" izeneko dokumentua, arloko koordinatzaile orokor Alfredo Pirisek sinatua.
- 4.- Alkatetzaren ebazpena, tokiko kontsumoa sustatzeari buruzkoa.

Alkatetzaren 2014ko maiatzaren 5eko Ebazpenak honako jarraibide hau ezartzen zuen:

"Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 178.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, aurrerantzean Gasteizko Udalean izapidetzen diren publizitaterik gabe negoziatutako kontratuetan, **gutxienez hiru eskaintza tokiko enpresei eskatu beharko zaizkie eta horietako bat gutxienez bost urte baino antzintasun gutxiagoko tokiko enpresa bati**, salbu eta tokiko hornitzaileak ez izateagatik ezinezkoa baldin bada, horrela jasoz dagozkion txostenean.



Ebazpen honen ondorioetarako, tokiko enpresatzat hartuko dira beren egoitza soziala Gasteizen dutenak, eta haien antzinasuna Merkataritza Erregistroan inskribatzen diren egunetik zenbatuko da, edo, enpresa pertsonalisten kasuan (autonomoak), ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emandako egunetik aurrera.

Ebazpen hau betetzea ahalbidetzeko, Udalaren webgunean esteka bat jarriko da **Arabako Enpresa Sindikatuaren datu-baserako** ”.

Gasteizko Udaleko web orrian badago Arabako Enpresa Sindikatuaren datu-baserako esteka bat¹.

Lehiaren Euskal Kontseiluak txosten honen bitartez aztertuko du dagokigun jarraibidea noraino den bateragarri lehiaren araudiarekin.

II. LEAren eskumenak

1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, erakunde honi lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin da txosten hau².

Eskumen horien helburua da benetako lehia sustatzea Euskadiko merkatuetan. Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartuko dira, eta, horrelako neurrien esparruan, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira, besteak beste.

III. Zerbitzuko Jarraibideen izaera juridikoa

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21. artikulua ezartzen duenez – zerbitzuko jarraibideei eta aginduei buruzkoa baita–, administrazio-organoek zerbitzuko jarraibide eta aginduen bidez zuzen ditzakete hierarkikoki mendeko dituzten organoen jarduerak³.

¹GASTEIZKO UDALA "Arabako enpresen erakusleioa da: SEA iWork" *Gasteizko Udalaren webgunean*, helbide honetan:http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&aplicacion=wb021&tabla=contenido&uid=u24d4b3b4_1352d123a30__7ff5 (azken kontsulta: 2015.05.19).

² Ikus Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.3 eta 10.n artikulua (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).

³ Azaroaren 26ko 30/1992 Estatuko Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (1992ko azaroaren 27ko BOE, 285 zk.).



Auzitegi Gorenak zerbitzuko jarraibideen ezaugarriak azaldu ditu, ondoren adierazten den moduan.

"Sala honen jurisprudentziak (horrela 1989ko maiatzaren 24ko [1989, 4064 JB] eta azaroaren 27ko epaiak [1989, 8327 JB] eta 1997ko otsailaren 10eko epaia [1997, 1087 JB]) zera adierazi du hainbat aldiz, Zirkularrak eta Jarraibideak administrazioaren antolaketaren eremuan kokatzen diren administrazio-ebazpenak direla, haren egitura zuzentzen duen hierarkia-printzipioan oinarrituak hain zuzen eta bestalde, egintzei eta gidalerroei dagokienez duten edukia eta xedea ezin direla erregelamenduak egiteko ahalean bildu. Sala honen 7. sekzioak 2006ko ekainean emandako epaian (sic) (2006, 5831 JB) (Errek. 3837/2000, gomendioa) honako hau zehazten zuen: "administrazio-organo baten erabaki zehatz bati arau-balioa ematea edo ez ematea ez dago soilik erabaki horren edukiaren menpe. Erabakia hartzen duenak erabakiari ematen dion irismena eta esanahia da benetan erabakigarria."⁴

Alabaina, administrazio-praktikak eragin du jarraibideen itxurarekin benetako erregelamenduak aurkitzea. Batzuk eta besteak bereizteko Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak adierazi du irizpide formaletara jo beharrean irizpide materialetara, edukietara jo beharko litzatekeela, hain zuzen ere ezarritako betebeharrak funtzionarioei (barne-eremuan) soilik dagozkien edo administratuei dagozkien aztertze⁵.

Hau da, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, 30/1992 Legearen 21. artikulua aplikatuz emandako jarraibideek ez dute arauzko baliorik. Arau horiek ez dira Administrazio Publikoari aitortutako erregelamendu-ahala gauzatzetik sortzen; izan ere, mendeko administrazio-organoei soilik eragiten diete. Nolanahi ere, ezin dute ordenamendu juridikoa berritu. Horrelako arauak ematerakoan, Administrazio Publikoa ordenamendu juridikoarekiko mendetasunaren printzipio konstituzionalari lotuta dago (EKren 9. art.)

IV. Kontratazio Publikoa eta Lehia

Kontratazio publikoari buruzko Europako zuzentarauek ezarri dute lehia librea funtsezko betebeharra dela edozein kontratu-prozedura publikotan; ondoren, estatu kideek barne-araudietan txertatu dituzte zuzentarauek⁶.

⁴ Auzitegi Gorenaren 2008ko urriaren 17ko Epaia, Administrazioarekiko Auzietako Sala (JB\2008\5192).

⁵ Auzitegi Gorenaren 1995eko martxoaren 3ko Epaia.

⁶ Ikus Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentaraia, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzeko prozedurak



Kontratazio publikoari buruzko Europako zuzentarau berriak (oraindik ez da Espainiako ordenamendu juridikoan txertatu) ezartzen du Estatu kideek kontratu publikoak esleitzean besteak beste, honako printzipio hauek errespetatu behar dituztela: tratu-berdintasunarena, diskriminaziorik ezarena, elkar aitortzearena, proportzionaltasunarena eta gardentasunarena. Printzipio horiek guztiek kontratazio publikoa lehia librearen printzipioetan oinarritzera daramate. Hori dela-eta, zuzentarauak beren-beregi dio kontratazioa **"ez dela ulertuko lehia modu artifizialean mugatzeko"**. Zehazki, kontratazioa **zenbait operadore ekonomikoren alde edo aurka egiteko** erabiltzea debekatzen da.

Ildo horretan, kontratuen arloan indarrean dagoen araudiaren (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina) 1. artikuluan ezartzen da sektore publikoko kontratazioaren erregulazioak **lehia librea babestea ziurtatu behar duela**⁷.

Barne-auzitegien hainbat ebazpenetan azpimarratu da lizitazio publikoetan konkurrentzia librearen funtsezko izaera.

Konstituzio Auzitegiak ondoren idatzitako moduan azpimarratu du:

“(....) administrazio-kontratazioaren arloari dagokion oinarritzeko araudiaren xede nagusia, interes orokorreko beste xede batzuek gain, zera da, publizitatearen, berdintasunaren, konkurrentzia librearen eta segurtasun juridikoaren bermeak eskaintzea, hain zuzen ere Administrazio Publiko guztiek herritarrei tratu bera ematen dietela ziurtatzeko. Gai horri buruzko EEEko Zuzentzauek helburu hori indartu eta subjektiboki hedatu egiten dute eta gure barneko Zuzenbidea horietara egokitu behar da.(...)”⁸

Auzitegi Gorenak lehia librearen funtsezko elementu gisa ikusten du lizitazio publikoetan:

koordinatzeari buruzkoa. 2004ko apirilaren 30eko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala (L 134/114), gaur egun Espainiako ordenamendu juridikoan txertatua eta indarrean dagoen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentzauek (kontratazio publikoari buruz) 2004/18/EE Zuzentzauek indargabetzen duena. Abenduaren 18ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala (L 94/65).

⁷ Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 1 artikulua. 2011ko azaroaren 16ko BOE, 276. zk.

⁸ Apirilaren 22ko 141/1993 Epaia. 513/1987 eskumen-gatazka positiboa. Eusko Jaurlaritzak sustatua azaroaren 28ko 2.528/1986 Errege Dekretuari dagokionez; haren bidez aldatu zen Estatuko Kontratazio Orokorraren Erregelamendua 931/1988 Legegintzako Errege Dekretuari egokitzeko. BOE, 127. zk. Osagarria, 1993ko maiatzaren 28koa.



“(…) Administrazio-kontratazioa gidatzen duten printzipioen artean dago kontratazio publikoan aritzen diren enpresek aukera berdinak izatea eta, beraz, kontratazio-prozedurak, 1976ko ekainaren 13ko Auzitegi Gorenaren Epaiak onartu zuen moduan, interes publikoa bermatzearen alde egiten du, lizitazioaren hiru funtsezko printzipio artikulatuz: berdintasunaren, lehia librearen eta aukera-berdintasunen printzipioak.” (Bosgarren Zuzenbideko Oinarria)⁹.

Auzitegi Gorenak ere kontratazio publikoan aplikagarriak diren funtsezko printzipioak azpimarratzen ditu.

“Administrazio-kontratazioa gidatzen duten printzipioen artean dago kontratazio publikoan aritzen diren enpresek aukera berdinak izatea; beraz, kontratazio-prozedurak interes publikoa bermatzearen alde egiten du, lizitazioaren hiru funtsezko printzipio artikulatuz: berdintasunaren, lehia librearen eta aukera-berdintasunen printzipioak”¹⁰.

Bestalde, Lehiaren Batzorde Nazionalak lizitatuzaileen artean lehia izateak duen garrantzia azpimarratu du, sektore publikoko erakundeek eta azken batean gizarteak eskaintza onenak balia ditzaten kontratatzen diren ondasun edo zerbitzuen prezioari, kalitateari eta berrikuntzari dagokienez. Lehia-baldintza eskasek eragiten dute ondasunak eta zerbitzuak kontratatzen dituzten sektore publikoko erakundeek ahalegin ekonomiko handiagoa egitea, eta, beraz, baita herritarrek ere¹¹.

V. Kontratista hautatzeko eta kontratuak esleitzeko prozedurak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean aurreikusitako kontratazio publikoko prozeduren artean **publizitaterik gabe negoziatutako prozedura** dago; prozedura horrek ez dauka Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 138. kapituluan adierazten den prozedura

⁹ Auzitegi Gorenaren 2000ko irailaren 19ko Epaiak, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 7. sekzioa. (JB\2000\7976)

¹⁰ Auzitegi Gorenaren 2007ko urriaren 17ko Epaiak, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 4. sekzioa. (BK 3171/1995).

¹¹ COMISIÓN NACIONAL DE LA COMPETENCIA, *Guía sobre Contratación Pública y Competencia*, Madril, 2011, 4. or.



"arruntaren" kategoria. *Sensu contrario*, salbuespenezko kategoria dauka eta Legean ezarritako kasuetan soilik erabil daiteke¹².

Prozedura horietan prozedura arruntetan aplikagarriak diren printzipio berak aplika daitezke: lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, prozeduren gardentasuna eta publizitatea eta lehiakideen arteko diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna. Administrazioaren betebeharrak dira lehia librea babestea eta ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintza hautatzea, lizitatzailerei eta hautagaiei berdintasunezko tratu ez-diskriminatzailea ematea eta jarduna gardentasunaren printzipioari egokitzea.

Dagokigun prozedura motan, kontratazio-organismoak hautatutako lizitatzaileri esleituko zaio kontratua. Hautaketa arrazoitu egin beharko da, kontsulta hainbat hautagairi egin eta kontratuaren baldintzak haietako batekin edo hainbatekin negoziatu ondoren. Prozedura honek aldez aurreko publizitatea izan beharko du Legean aurreikusitako kasuetan, eta kasu horietan edozein enpresaburu interesdunek aurkeztu ahal izango ditu eskaintzak. Gainerako kasuetan, ez da beharrezkoa izango prozedurari publizitatea ematea, baina eskaintzak eskatzearen bitartez gutxienez kontratua betetzeko ahalmena duten hiru enpresak parte hartzea ziurtatu beharko da, ahal bada.

Prozeduran publizitaterik ez izatearen ordez kontratazio-organismoak eskaintzak eskatu beharko dizkio gutxienez kontratua betetzeko ahalmena duten hiru enpresari.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak arlo horri dagokionez ezarritako irizpideak kuantitatiboak (hiru enpresa gutxienez) nahiz kualitatiboak (kontratua betetzeko ahalmena duten enpresak) dira (178. artikulua).

Administrazio Kontratueterako Kontsulta Batzordeak honako hau ezarri du horri dagokionez:

"Kontratazio-organoei ezarritako karga bat da, hain zuzen ere kontratua egiteko asmoa hedatzeari dagokionez iragarkia argitaratzeak duen eraginaren ordezkoa; izan ere, enpresaburuei gonbidatzeko betebeharra ezarri gabe beharbada ezingo litzateke kontraturik egin. **Beraz, ez da kontratazio-organismoari emandako prerrogatiba bat**

¹² 50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten kontratuetan kasuan (obra-kontratuetan) edo 18.000 eurotik beherako zenbatekoa duten kontratuen kasuan (bestelako kontratuetan), Administrazio Publikoak, Kontratuei buruzko Legearen arabera, jarduteko ahalmena eta prestaziorako beharrezkoa den lanbide-gaikuntza duen edozein enpresabururi zuzenean esleie diezaiolke kontratua.



zenbait kasutan lizitatzailleen kopurua hirura murrizteko, baizik eta kontratazio-organoari ezarritako karga bat interesdunek lizitazioaren berri izan dezaten”¹³.

Legezko betebeharrak hori betetzeko kontratazio-organoak berdintasunezko tratua ez diskriminatzailea eman behar du lizitatzailleei eta hautagaiei. Haien jardunak gardentasun-printzipioari jarraitu behar du, are gehiago publikizaterik gabe negoziatutako prozeduraren kasuan, definizioz mugatua baita¹⁴.

VI. Gasteizko alkatearen Jarraibidea eta lehia librea

Ikusi denez, Gasteizko Udalean izapidetzen diren publikizaterik gabe negoziatutako kontratuei dagokien jarraibideak Gasteizko Udaleko kontratazio-organoak tokiko enpresei gutxienez hiru eskaintza eskatzera behartzen ditu eta

¹³ ESTATUKO ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOAREN AHOLKU BATZORDEA 33/09 Txostena, 2010eko otsailaren 1ekoa, *Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren webgunean*:

<http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/Informes/Informes2010/Informe%2033-09.pdf> (Azken kontsulta: 2015eko maiatzaren 19an).

¹⁴ Ildo horretan, Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiak adierazi du gardentasunaren betebeharrak bermatu behar duela edozein lizitatzaillek merkatua lehiarekiko irekitzea ahalbidetuko duen publikitate-maila egokia izatea baita prozeduren inpartzialtasuna kontrolatzea ere. Prozedura bidezkoa eta inpartziala izatearen bermea da publikitate gardenaren betebeharraren beharrezko ondorioa. Aurreko horretatik ondorioztatzen da kontratu bat esleitzean lizitazioaren arauak eta printzipioak errespetatu behar direla, dagokion kontratuan interesa duten operadore ekonomikoen bidezko lehia-baldintzak bermatu ahal izateko. Justizia Auzitegiaren 2000ko abenduaren 7ko epaia, Teleaustria auzia. Gaia: C-324/1998.

Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiaren 2005eko urriaren 13ko Epaia (Gaia: C-458/03, Parking Brixel GMBH) honako hau ezartzen du: "Berdintasunezko tratua eta nazionalitateagatik ez diskriminatzailearen printzipioek agintaritza publiko emaileak aipatutako printzipioak errespetatzen direla ziurtatzea ahalbidetuko duen gardentasun-betebehar berezia inplikatzeko dute. Gardentasun-betebehar hori agintaritza horri dagokio, eta betebehar horrek edozein lizitatzaillek zerbitzuak ematea lehiara irekitzea eta esleipen-prozeduraren inpartzialtasuna kontrolatzea ahalbidetuko duen publikitate-maila egokia bermatu behar du (...)." Justizia Auzitegiaren 2005eko urriaren 13ko Epaia, Parking Brixel GMBH. Gaia: C-458/03.

Era berean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak honako hau zehazten du gardentasun-betebeharrari dagokionez: " (...) gardentasun-betebeharraren helburu nagusia da erakunde esleitzaileren aldetik faboritismo- eta arbitrariotasun-arriskurik ez izatea bermatzea (2012ko martxoaren 29ko Epaia, SAG ELV Slovensco, eta beste batzuk)". Ikus Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2012ko abenduaren 5eko Epaia 36. atala (Nordecon eta Ramboll-Gaia: C-561/12).



eskaintza horietako bat gutxienez bost urte baino antzintasun gutxiagoko tokiko enpresa bati.

Jarraibidean tokiko enpresatzat hartzen dira beren egoitza soziala Gasteizen duten enpresak. Enpresen antzintasuna Merkataritza Erregistroan inskribatzen diren egunetik zenbatuko da edo enpresa pertsonalisten kasuan (autonomoak), ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emandako egunetik aurrera.

Gasteizko Udaleko webgunean Arabako Enpresa Sindikatuaren datu-baserako esteka bat gaitu da.

Ebazpen hori formalki hurbilena dauden enpresen jarduera ekonomikoa sustatzeko xedeaz justifikatu da.

Aurretik adierazi den moduan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 178. artikuluan ezartzen da publizitaterik gabe negoziatutako prozeduran, kontratua betetzeko ahalmen duten hiru enpresari gutxienez eskatu beharko zaiela beren eskaintza egiteko.

Prozedura horrek berez konkurrentzia mugatua du, definizioz, publizitaterik ez duelako. Hori dela-eta, beharrezkoa da Administrazio Publikoak lizitazio publikoan parte hartzeko ahalmena duten enpresak inolako murrizketarik gabe gonbidatzea. Administrazio Publikoak lurralde-irizpideen arabera mugatutako gonbidapenak eginez (Gasteizen dauden enpresak) parte hartzeko murrizketak –legean aurreikusten ez direnak– ezartzeak hainbat printzipio urratzen ditu (lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, enpresa hautagaien arteko berdintasuna, kontratu-prozeduraren gardentasuna) eta, beraz, hautagaiei tratu diskriminatzailea ematen zaie eta hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 1. eta 139. artikuluen aurka dago.

Legeak bi irizpide ezartzen ditu kontratista hautatzerakoan interes publikoa bermatzeko, hots, kuantitatiboa (hiru enpresa gutxienez), lizitazioan enpresen gutxieneko kopuru batek parte hartzen duela ziurtatzeko eta kualitatiboa (enpresen ahalmena), lizitazioan parte hartzen duten enpresek kontratua betetzeko gaitasuna izan dezaten.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 54. artikuluan arabera enpresek jarduteko gaitasuna, kaudimen ekonomikoa eta hala badagokio, enpresa- edo lanbide-gaikuntzaren bat izan behar dute; aldiz, ez dute kontratuak egiteko debekurik izan behar.

Egiaztatuta geratu den moduan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 1. eta 139. artikulua), Udalak berdintasunezko tratu ez



diskriminatzailea eman behar die hautagaiei eta lizitzaileei eta betiere gardentasun-printzipioaren arabera jardun. Era berean, Udalak honako hauek bermatu behar ditu: lizitazioetan parte hartzeko askatasun-printzipioa, prozeduren gardentasuna eta hautagaien arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestalde, lehia librean babestu beharko du.

Jarraibideak enpresen ahalmenaren helburuari lurralde-irizpide bat eransten dio. Irizpide horrek Gasteizen ez dauden enpresak kanpoan uzten ditu.

Eskakizun horrek Gasteizko zenbait enpresaren aldeko tratu diskriminatzailea dakar, hain zuzen ere hiri horretan ez dauden baina ahalmena izan dezaketen beste enpresa batzuen kalterako. Legez kanpo dagoen arau horrek lizitazioaren xede den kontraturako lehia mugatzen du.

Neurri horrek lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren eta gardentasunaren printzipioak urratzen ditu, eta, beraz, ez du interes orokorra babesten, administrazioak egin behar duen moduan, baizik eta kolektibo jakin bat soilik.

Kolektibo horri merkatu mugatu bat ezarriko zaio (lehiaren ikuspuntutik, merkatu "gatibua"), eta horrek eragingo du prezioak jaisteko eta kalitatea eta berrikuntza areagotzeko pizgarri gutxiago izatea.

Jarraibideak eragiten du administrazioak Gasteizko enpresen alde egiteko moduan diseinatzea kontratazioak. Lehiaren ikuspegitik, muga onartezina dakar jardun horrek. Beraz, horrek dakar administrazioa deuseztasun-kausan erortzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 32. artikuluan eta lehiaren arloko araudian ezarritakoari jarraiki.

Era berean jarraibideak eskakizun gisa ezartzen du gonbidatutako enpresa baten antzintasuna bost urtetik beherakoa izatea.

Eskakizun horrek enpresa sortu berrien aldeko diskriminazioa dakar, efizientzia-irizpiderik kontuan hartu gabe.

Beraz, jardun diskriminatzailea izateaz gain, erabiltzaileen interes orokorraren aurkakoa izan daiteke.

Jarraibideak enpresa-erakunde baten –Arabako Enpresa Sindikatuaren– datu-basean erregistratzeko eskakizuna biltzen du.

Enpresak Arabako Enpresa Sindikatuan erregistratzeko eskakizunak Udalaren kontratu publikoen merkatuan sartzeko bidegabeko oztoppa ezartzen du.



Eskakizun horrek kontratu publikoen merkatua enpresa-erregistro horretan biltzen diren enpresen artean banatzea ekar edo erraz dezake, eta horri eutsiz gero, lehiaren defentsa-prozedura bat irekitzea ekar dezake, arau-haustearen arrastoa izateagatik.

Edozein lizitaziotan parte hartu ahal izateko Administrazioak enpresa-elkarte batean (edozein motatakoa) parte hartzea eskatzea guztiz onartezina da lehiaren eta kontratazioaren ikuspegitik.

Jarraibidean aipatzen da Udalaren webgunean Arabako Enpresa Sindikatuaren datu-baserako esteka bat gaitu dela "ebazpen hau betetzea ahalbidetzeko".

Datu-base hori Udalaren webgunean argitaratzeak berezko abantaila dakar bertan biltzen diren enpresentzat; izan ere, Administrazioarekin kontratuak egiteko hor (enpresa-elkarte soil batean) erregistratu gabeko enpresekiko plus bat dutela dirudi.

Publizitate hori berez diskriminazio-elementu bat da, eta, beraz, lotura hori ezabatu egin behar da Udalaren webgunetik.

Jarraibidearen arabera izapidetutako kontratu-esleipenen ebazpenak, erabat deusezak direnez, jarraibidearen araberako kontratazio-prozeduretan interes legitimoa duten enpresek aurkaratu ahal izango dituzte.

1/2012 Legearen 3.4 artikuluari jarraiki, Lehiaren Euskal Agintaritzak lehiari mugak ezartzen dizkieten egintza administratiboak eta xedapen orokorrak aurkaratzeko legitimazio aktiboa du. Legitimazio horren arabera, lehia mugatzen duten egintza administratiboak aurkaratu ahal izango ditu.

VIII. Ondorioak

LEHENA- Lizitazio publiko batean parte hartzeko hiri jakin bateko hiru enpresa gonbidatzeko irizpideak lizitaziorako lehia librea mugatzen du, baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 1., 139. eta 178. artikulua ere.

BIGARRENA- Gonbidapenetako bat bost urte baino antzintasun gutxiagoko enpresa bati egiteko eskakizunak lizitaziorako lehia librea mugatzen du, baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 1., 139. eta 178. artikulua ere.



HIRUGARRENA- Lizitazio batean parte hartzeko enpresa-elkarte batean erregistratzeko eskakizuna interes orokorraren aurkako diskriminazio argia da eta jardun kolusorio baten aldekoa izan daiteke. Udalak bere webgunearen bitartez enpresa-elkarte baten datu-basera sartzeko esteka gaitzeak lehia murrizten du.

LAUGARRENA- Beraz, jarraibidea erabat deuseza da eta indargabetu egin behar da. Era berean, desgaitu egin behar da Udalaren webgunean gaitutako enpresa-elkartearen datu-baserako esteka.

Bilbao, 2015eko maiatzaren 19a